

Trafiko-Plana Zumaian

Zarauzko Triatloiak 14:00ak eta 17:45ak bitartean izango ditu eraginak Zumaiaiko udalerrian, izan ere tarte horretan N-634 errepidea itxita egongo delako Zarauzko norabidean. Bitarte horretan honako neurriak hartzeko proposamena aurkezten da, antolakuntzak burutu duen Trafiko Planaren arabera:

Zumaiara iristeko

Zarauztik

- **14:00tatik 16:00tara:** N-634 errepidetik joan ahalko da normaltasunez, lasterketaren kontrako norabidean.
- **16:00tatik 17:45tara:** Zarautzen N-634 errepidea itxi egingo denez, ibilgailuak Zarauzko atzealdetik bideratuko dira (Araba eta Bizkaia kaleetatik barrena) eta Meaga gaina Oikiatik jarraitu ahal izango dute Zumaiaraino.
- **17:45tatik 18:45tara:** Zarautzen N-634 errepidea itxita egongo denez, autoak Zarauzko atzealdetik bideratuko dira (Araba eta Bizkaia kaleetatik barrena), eta gero hortik N-634 errepidetik jarraitu ahal izango dute normaltasunez (Bizkaia kaleetik parrokia aldera jaitsiz).
- Autopistatik irteten diren ibilgailuek ezingo dute Zumaiara ohiko bidetik sartu 14:45ak eta 17:30ak bitartean. **Saihesbidea:** Iraeta – Aizarnazabal – Oikia – Bedua.

Itziarretik

- **14:50tatik 17:30tara** N-634 errepidea itxita egongo da Narrondotik aurrera (Bombas Iturreko bidegurutzean) eta ibilgailuak ezingo dira Zumaiara sartu ohiko bidetik. Aurreko egunetan kartela jarriko da Itziarren, intzidentzia honen berri emanez.
- **Saihesbidea:** Iraeta – Aizarnazabal – Oikia – Bedua.

Azpeitia-Zestoatik

- **14:45tatik 17:30tara** GI-631 errepidea itxita egongo da Iraetatik aurrera (bidegurutzean) eta ibilgailuak ezingo dira Zumaiara sartu ohiko bidetik.
- **Saihesbidea:** Iraeta – Aizarnazabal – Oikia – Bedua.

Zumaiatik irteteko

Itziar aldera: N-634 errepidetik uneoro, normaltasunez.

Zestoa-Azpeitia aldera: Narrondotik eta GI-631 errepidetik uneoro, normaltasunez.


Zarautz aldera:

- **14:00tatik 17:45tara** N-634 errepidea itxita egongo da Zarauzko noranzkoan.
Saihesbidea: Autopista
Denä den, 16:45ak arte ibilgailuak pasatzen utzi daitezke Getarian gelditzeko asmoa badute. Kirol-portura sartu nahi duten ibilgailuei pasatzen utziko zaie, uneoro. Horretarako, irteerako errotondan ibilgailu horiek behar bezala bideratzeko, boluntarioen eta Zumaiaiko udaltzainen kolaborazioa ezinbestekoa izango da.

Garraio Publikoa

- **Ondarroa - Zumaia (DB05):** Deban 14:45tan irteten den zerbitzua Arroa Beheko auzoraino iritsiko da, eta ondorioz Zumaiaiko geldituak (Narrondo, Patxita Etexzarreta eta Geltokia) ezabatu egingo dira.
- **Zumaia – Ondarroa (DB05):** 15:10etako zerbitzuan ezabatu egingo dira Zumaiaiko geldituak (Geltokia, Patxita Etexzarreta eta Narrondo), eta zerbitzua 15:15tan abiatuko da Arroa Behetik Debarantz.
- **Zumarraga – Zumaia (UK06):** Zumarragatik 15:15tan irteten den zerbitzua Zestoaraino iritsiko da. Ondorioz, Zumaiaiko geldituak ezabatu egingo da zerbitzu horretan.
- **Zumaia – Zumarraga (UK06):** Zumaiaatik 16.45tan irteten den zerbitzua ezabatu egingo da.

- **Zumaia – Aizarnazabal – Zestoa (UK07):** 17:10eko zerbitzua burutzen duen autobusa, Patxita Etxezarreta geralekura iritsiko da ordezko ibilbideetik (irudia ikusi), gero Aizarnazabalerantz joango da saihebidetik eta antolakuntzak igarotze arautua emango dio Beduara doan desbideratze biribilguneraino.



- **Zumaia – Donostia (UK09- UK10 – UK11):** 15:30 eta 16.00tan irteten diren zerbitzuak ezabatu egingo dira. Bestalde, ibilbide hau egiten duten autobusak ez dira pasako Getariatik 14.30ak eta 17:30ak bitartean, eta ondorioz Getariako geltokia ezabatu egingo da ordu horietan zehar. Bitarte horretan, autobus zerbitzu berezia ezarriko da Getariatik Zumaia, "lanzadera" moduan, gero han transbordo egin ahal izateko Zarautz edo Donostiara doazen autobusekin. Transbordo Patxita Etxezarretako geltokian egingo da. Ikusi lanzaderaren ordutegiak behean.
- **Donostia – Zumaia (UK09- UK10 – UK11):** 15:45 eta 17.00tan irteten diren zerbitzuak ezabatu egingo dira. Bestalde, ibilbide hau egiten duten autobusak ez dira Getariatik pasako 16:00ak eta 18:00ak bitartean, eta ondorioz Getariako geltokia ezabatu egingo da ordu horietan zehar. Dena den, ordu horietan zehar "lanzadera" zerbitzua egongo da Getariatik Zumaia. Ikusi lanzaderaren ordutegiak behean.

GETARIA	ZUMAIA (Patxita Etxezarreta)	ZUMAIA – DONOSTIA zerbitzuko ordutegiak (Patxita Etxezarretatik)
14:15	14:25	14:30
14:45	14:55	15:00
16:15	16:25	16:30
16:40	16:50	17:00
16:50	17:00	17:15

Urgentziako kasuak

- Anbulantziek zein suhiltzaileek lasterketako ibilbidean sartu ahal izango dute, hala behar izanez gero.